


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,5 jaitsi dira 2009ko apirilean, aurreko hilearen aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko apiriletik 2009ko apirilera) eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira.

EUSTATen datuen arabera, EAEn eraikuntzako kostuen indizeak % 0,5eko beherakada izan du 2009ko apirilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 0,1era jaitsi da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*)Gehikuntza apirileko urte artekoa da

Fuente: EUSTAT

2009ko apirilean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuak % 0,6 jaitsi dira.

Apirilean, eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute horien lehengaien kostuari dagokionez; aurreko hilabetearen aldean % 0,7 egin du behera eraikuntzak, eta obra zibilaren lehengaien kostuak % 0,3 egin du behera. Bi azpisektore horien urteko bilakaerari dagokionez, alde nabarmenak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuak % 0,7 gehitu dira, eta obra zibilekoek % 6,2 egin dute behera.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: ura (% 7,4), altzarien fabrikazioa (% 4,6), mineral ez-metalikoak (% 4,3) eta material elektronikoa (% 3,6). Beste alde batetik, urteko prezioetan beherakada izan dute (2008ko apiriletik 2009ko apirilera) hurrengo sektoreetako lehengaiak: petrolioaren birfinketa (-% 33,2), metalurgia (-% 17,3), material elektrikoa (-% 2,4), zuraren industria (-% 2,3) eta energia elektrikoa eta gasa (-% 0,7).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2009KO APIRILA
GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,1	-0,5	-0,1	-0,4
ERAIKINAK	116,6	-0,6	1,0	-0,4
OBRA ZIBILA	114,3	-0,2	-4,0	-0,4
LEHENGAIEN KOSTUA	115,2	-0,6	-0,8	-1,1
ERAIKINAK	115,9	-0,7	0,7	-1,0
OBRA ZIBILA	112,5	-0,3	-6,2	-1,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,0	0,0	2,1	2,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp